



Euskararako itzultzaile automatikoa: aurrerapausoak eta ikerlerro berriak

Nora Aranberri

Aukerak

Esanak esan, ezin uka dezakegu euskara bezalako hizkuntza gutxiueterako itzulpen automatikoak (IA) hainbat onura ekar ditzakeela, besteak beste, euskara babesten eta sustatzen lagun dezakeelako. Esaterako, IA duinek euskarazko eduki digitala handitu dezake, eta horrek, era berean, gure komunitatearentzat informazioa euskaraz eskuragarri egotea ahalbidetuko luke, bestela izango ez genukeena, sarri. Halaber, lineako plataformetan, sare sozialetan eta komunikazio digitaleko askotariko kanaletan, euskaraz parte hartzea ahalbidetu lezake. Eta zergatik ez, hizkuntza ikasteko pizgarria ere suerta liteke teknologia hori, ikasketa-prozesuan kide bihurtuta. Aipatutako aukerek hizkuntza-aniztasuna sustatzen dute, IA hizkuntza-homogeneizazioari aurre egiteko lanabes bilakatua.



Erabilera-erronkak

IAK dakarzkigun abaguneetatik onurak erdiestea ez da erraza, berez gertatuko den ondorioa. Izan ere, halaxe ohartarazi digute zenbait ikertzailek azken urteetan: IAK sortutako proposamenetako xede-hizkuntzen ezaugarriak ez omen datoz guztiz bat hizkuntza horiek pertsonen zuzenean erabiltzen dituztenean erakusten dituztenekin.

1. Batetik, teknologiaren garapenean erabili diren testu generoak eta gaiak ez direnak itzultzeko erabiltzen dugu IA, bestela esanda, IAK ikasi ez dituen adierazpenez eta moldez jositako testuak itzultzeko (Sánchez-Gijón eta Piqué-Huerta, 2020).
2. Bestalde, badakigu itzultitako testuek berriazko zenbait ezaugarri erakusten dituztela, hala nola, homogeneizazioa eta interferentzia (Toury, 1995).
3. Gainera, itzultzeko IA programak erabiltzerakoan ezaugarri horiek nabarmendu egin omen dira (Vanmassenhove, Shterionov eta Gwilliam, 2021).

Arrazoiak arrazoi, badirudi IA-hizkuntzak bere ezaugarri propioak dituela, eta litekeena da ezaugarri horiek gure egunerokoan maiztasunez agertuz gero, euskararen eragina izatea eta pertsonen jardunean ere agertzea (Kranich, 2014; Kotze, 2020).

Ikerlerroak

IA euskara sustatzeko eta normalizazio bidean lagun diezagun erabili nahi badugu, hobe dugu tentuz jokatzeko teknologiarekin. Baliteke haren garapena bideratzeko bide-erria prestatzea zuzurra izatea. Horretan laguntzeko, hona hemen ezinbesteko izan litezkeen alderdi batzuk:

Entrenamendu-corpusak

IA sistemak, dela konkretuki itzultzeko entrenatutakoak dela hizkuntza eredu masiboetan oinarritutakoak, testu-baliabideez hornitzen dira. Egun, lineako baliabideak ustiatzen ditugu gehienbat, batez ere publikoki atzigarri jarriko diren programak entrenatzeko. Gogoan izan behar dugu linean ez daudela testu-genero, erregistro eta gai guztiak era orekatuan islatuta.

Kalitate-anotazioak

IA sistemen kalitatea neurtzeko ezinbesteko tresnak dira metrika automatikoak. Egun, baina, sare neuronalen bidez entrenatu daitezkeen ereduak gailentzen ari dira, itzulpen-erreferentziekin eta haien balorazioekin entrenatutakoak. Arriskua metrika hori euskarazko daturik gabe entrenatu arren euskarazko IArekin kalitatea antzemateko erabiltzean datza.

Ebaluazio-komunitateak

Ebaluazio automatikoaren atzetik datoz erabilera-ebaluazioak, mota askotarikoak, hainbat testuingurutan gerta litezkeenak. Momentua helduta horri samur ekiteko, interesgarria litzateke ebaluazio-ekintzetan parte hartzeko prest dauden pertsonen komunitate bat hezteko. Asko dira profil beharrezkoak gainera: itzultzaileak, filologoak, gaitasun maila askotariko pertsonak eta ikasleak...

Analisi-tresnak

IA sistemak bide ekoiztutako hizkuntza azterzea ere garrantzitsua izango da hizkuntzaren garapenez jabetzeko. Horretarako, behar ditugu testu multzo zabalak analizatzeko tresna automatikoak, hizkuntza-maila desberdinetan lan egiteko gai direnak. Sortuak dira jada hainbat prototipo, baina horien doitasuna, estaldura eta eraginkortasuna hobetzea ezinbestekoa izango da.